

BEHATXULOTIK



MARIN FUNTSA. PASCUAL MARIN

EMAKUMEAK, «ATSEKABETUTAKO FAMILIEN OIHARTZUNA» ONDARRETAN

Frankistak Donostiara sartutakoan, Ondarretako kartzelan ehunka preso zeuden, eta fusilamenduak eta torturak eguneroko ogi bihurtu ziren. Agintariak beste leku batzuk prestatu zituzten kartzela gisa. Emakumeentzat, Ondarretakoaz beraz gain, bazegoen beste bat San Jose babes-etxean. Lasarten kontzentrazio esparru bat eta Saturraranen espetxe bat ere prestatu zituzten emakumeentzat. Argazkia 1941ean egin da, Ondarretako kartzelaren sarreran. Ehunetik gora lagun, batez ere emakumeak, beren senide presoak ikusteko kartzela barrura sartzeko zain daude. Irudian ikusten denez, janariak eta arropak daramatzate otarreetan. Presoekin komunikatzeko eragozpenak zirela-eta, otarreen heldulekuetan etxeakoentzako gutunak ezkutatzeko zituzten. Hamar urte lehenago, 1931n, Errepublika aldarrikatu baino astebete lehenago, Clara Campoamorrek, Ondarretako kartzelan zeuden preso errepublikanoen askatasuna eskatu zuen mitin berean, hauxe esan zuen: «Honelako ekitaldietara, existitzen ez den justizia baten biktima gisa kartzeletan dauden lagun maiteen faltagatik atsekabetutako familien oihartzuna ekar dezakegu emakumeok».

Juantxo EGAÑA



ATHA-DAF-SCHOMMER-13462

FRANKISMOAREN ETA ELIZAREN MENPE, GASTEIZKO LANTEGI BATEAN

XX. mendearen hasierak emakumeen eskubideen aldeko borroka ekarri zuen berekin. Mugimendu feministen sorrera urteak izan ziren. 1933an emakumeek botoa emateko eskubidea gauzatu ahal izan zuten lehenengoz espainiar Estatuan. Erregimen frankista eta haren zapalkuntza iritsi zirenean atzerakada nabarmena gertatu zen, eta Eliza Katolikoak hartarako lagundu zuen. Portaera eta janzkera arau berriak jarri zituzten indarrean. Hezkuntzari dagokionez, 1941etik aurrera emakumeentzat propio sortutako irakaskai bat zegoen, besteak beste etxeko lanak, sukaldaritza eta jantzigintza nozioak biltzen zituen. 40ko hamarkadaren hasierako urteetan emakumeak lan mundura sartzen hasi ziren, osasungintzan, eskoletan, saltokietan eta beste lan esparru batzuetan, etxeko lanak ahaztu gabe, ordea. Artikulua ilustratzen duen argazkia 1945ean egin da, Gasteizko Adriano VI.aren kalean zegoen Calviño ehun-lantegian. Egilea Alberto Schommer Koch da, Gasteizera bizitzera etorritako argazkilari alemana. Schommerren funtsak Arabako Lurralde Historikoko Artxiboan daude gaur egun.